


HEGALUZEA

HILEROKO PREZIOEN GARAPENA




Prezioak (€/kg)


	Jatorri	Merkatu	Helmuqa
Azken hilabetea *		6,68	11,71
Aurreko hilabeteko *	3,01	6,86	11,81
(1) Aurtengo kanpainaren *	3,70	6,62	12,42
(2) Aurreko kanpainaren *	4,60	7,26	12,81
Bariazioa (1)/(2)	-20%	-9%	-3%

* Bataz besteko prezioa

Aurtengo kanpaina 4.335 tona hegaluze arrantzatu dira, iazkoan baino %35 gehiago, eta oraindik kanpaina ez da bukatu. Beste alde batetik jatorriko kotizazioak ez dira iazkoak bezain altuak.



URTETIK URTERAKO PREZIOEN ALDAKETA




Abenduan amaitutzat dago hegaluzearen kanpaina. Aurtengo harrapaketa kopuru altu honek prezioa jaitsarazi du. Merkan eta helmugan abenduko bariazioa %-3 eta %-1ekoa izan da hurrenez hurren. Azken jaitsiera honekin, helmugako kotizazioak urteko baliorik baxuena erdietsi du.

Jatorrian ezinda bariaziorik egon. Abenduan merkako eta helmugako bariazioa %-10 eta %-6koa izan da hurrenez hurren. Oro har 2012an jasotako merkako eta helmugako kotizazioak iazkoen azpitik ezarri dira.

HEGALUZZEA

HEGALUZZEAREN BALIO KATEA



Hegaluzea
Thunnus alalunga

Harrapaketa metodoa edo arrantza erremintak: Gurek ostetan uda da harrapakin gehiago izaten den epealdia, "hegaluzearen arrantza-aldia" delakoan, arrainak sarda estuetan azaltzen direnean. Kanaberaz arrantzatzen da, beta biziko eta kasan amuekin.

Tamaina:

- Gehienekoa: 1,20 m.
- Ohikoa: 80 cm-raino.
- Gutxienekoa: 52 cm.

Ezaugarri nabarmenenak:

- Urtaroko arraina da, udako hilabeteetan arrantzaturikoa.
- Kantauri erlaitzeko kanabera arrantza mota, ekologikoa eta tradizionalena da, gainontzeko arrantza-tresnek baino kalitate handiagoa eransten diona.
- Arrain sardak satelite bidez topatzen dira.
- Kontserba industriaren lehengai preziatu eta baloratuenetako bat da.

Informazio iturria: VV.AA. (2008). *Pescados y mariscos. Guía práctica*. Madrid: Mercasa.

Habitata: animalia erratikoa eta taldekoa da, eta sarda handiak osatu ohi ditu. Gaztasun handiko ur beroetan bizi ohi denez, iparraldeko kostaldeetan gutxitan aurki daiteke. Pelagiko honek 150 m arteko sakoneretan bizi daiteke; baina egunez 25-50 m artean egoten da, eta gauzez, 15-30 cm artean ere. Orokorrean, kostaldeko uretan ematen du udaberria, eta ur sakonetan udazkena eta negua.

Deskribapena: tamaina handiko arraina da, eta gorputz fusiformea eta altua du. Hegalaburrak baino meheagoa dauka atzealde. Handia da, eta muskulu sendoak eta indartsuak ditu. Bizkarra urdin iluna da, eta sabela zilar-kolorekoa. Bi koloreak zerranda iridizente batez banatuta daude, orokorrean. Gazteek ez dute orban argirik aldeetan eta sabelean. Bi bizkar-hegatsak ia batera daude, eta hori ilunak direla esan daiteke. Lehena luzea da, eta bigarrena, berriz, laburra eta baxua. 7 eta 9 pinula artean ditu. Hori-gris kolorekoak dira eta ertz beltza dute. Isats-hegal handia dauka, bertikala eta ilargi-erdi itxurakoa, ertz zuri edo argi batekin. Buru luzea eta mutur puntaduna dauka. Bular-hegats luze bereizgarriak ditu, eta bigarren pinularaino heldu ohi direnez, arrainaren luzeraren %30 baino gehiago hartzen dute. Isatsaren ardatza oso mehea da, eta karina bat dauka alde bakoitzean. Sabelaldean, hegats txikiak ditu. Begiak hezur-kapsuletan daude, eta handiak dira. Masailsezurra txikia da, eta hortz koniko txikiak ditu.